



EPE 2023

Txapela buruan eta ibili munduan

Merezimendu-lehiaketa

EAEko Lanbide Heziketako Sektore
Berezietako Irakasle Espezialistak

Deialdia: abenduaren 12koa.

Izen ematea eta
tasak ordaintzea: abenduaren 13tik 2023ko
urtarrilaren 10era arte, biak barne.

Merezimenduak
ematea: abenduaren 13tik 2023ko
urtarrilaren 10era arte.

Txanda mota: irekia.



www.steilas.eus

Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoa (desagertzear)

Espezialitatea	1. HE	2. HE	Plaza kopurua
Arte Grafikoetako produkzioa	6	2	8
Ibilgailuen mantentze-lanak	12	10	22
Sukaldaritza eta Gozogintza	13	14	27
Jatetxe-arloko zerbitzuak	5	1	6
Zurgintzako eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa	4	11	15
Makinen mekanizazioa eta mantentzea	18	42	60
Soldadura	9	9	18
Patroigintza eta Jantzigintza	1	0	1
Estetika	6	7	13
Ile-apainketa	9	4	13
Plaza-kopurua, guztira	83	100	183

Deialdi ofiziala eta prozesuaren zehaztapenak hemen!



Parte hartzeko betekizunak

Titulazioak

Ondorengo titulu hauetako bat izatea, edo hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea:

- Unibertitate diplomadun titulua, Arkitekto teknikoa, Ingeniari teknikoa edo Gradua, lizentziaduna, ingeniaria eta arkitektoa izatea, edo irakaskuntzarako baliokidetzat jotako Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren beste titulu batzuk izatea, edo titulu horiek lortzeko behar diren ikasketa guztiak gaindituta izatea eta titulua emateko eskubideak ordainduta izatea.
- *Irakaskuntzarako baliokidetzat joko da lanbide-arloko edo lanbide-arloetako goi-mailako teknikariaren titulazioa, baldin eta titulazio horretarako lehiatzen den espezialitateak irakasteko eskumena badu. Ondorio akademiko eta profesionaletarako goi-mailako teknikariaren baliokidetzat jotako tituluak ere baliokideak izango dira irakaskuntzaren ondorioetarako.
- Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzeko, beharrezkoa da honako titulazio, ziurtagiri edo lanbide-esperientzia hauetakoren bat izatea:
 1. Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoaren master ofiziala.
 2. Ondorengo zerrendako edozein titulu edo ziurtagiri, 2009ko urriaren 1a baino lehenago aterata:
 - a) Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Trebakuntza Pedagogikoko ziurtagiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria.
 - b) Maisu-maistraren titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Lehen Hezkuntzako maisu-maistraren titulua, Pedagogiako lizentziatura, Psikopedagogiako lizentziatura, edo pedagogia eta didaktikako prestakuntza jasotzen duen lizentziatura edo titulu baliokidea.

3. Kontuan hartuko dira baita ere:

2008-2009 ikasturtea bukatu aurretik ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete –jarraian edo etenekin– irakatsi izana egiaztatzen dutenak.

4. Titulazio ez-unibertsitariorekin –2.2.1.) oinarria–, Master titulu ofizialaren ikasketak egitea ez dutenak uzten, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza betetzen dela ulertuko da, goian aipatutako egoeraren bat emateaz gain, honako hauetako bat ematen denean:

- Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan adierazitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jaso izana, 2.2.2 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.
- 2014ko irailaren 1a baino lehen lanean jardun duela ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe probatueta bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez-jarraian edo etenekin- dagokion mailetan eta irakaskuntzan.

Hizkuntza eskakizuna

Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin parekagarria) edo irakasleen lanpostuen 1. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-2 mailarekin parekagarria) egiaztatzea, kasuan kasu, 1.3 eta 2.4 oinarrien arabera.

Dena den, abuztuaren 30eko 190/2011 Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren arabera, bitarteko irakasleek eta aldi baterako kontratatuek, baldin eta, aipatutako dekretua indarrean sartu aurretik (2011ko irailaren 21a), dekretu horren aplikazio-eremuan sartutako Lanbide Heziketako irakaskuntzei dagozkien irakasle-postuak bete badituzte, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko karrerako funtzionario izan ahal izango dira 1. hizkuntza-eskakizuneko plazetan, nahiz eta eskakizun hori bete ez; eta hiru urteko epea izango dute, karrerako funtzionario lanpostuaz jabetzen direnetik, eskakizun hori egiaztatzeko.

Merezimenduak (gehienez 15 puntu)	Puntuak
I. Lan esperientzia (gehienez 7 puntu)	
I.1. Kidego eta espezialitate berean ikastetxe publikoetan: ikasturte bakoitzeko (Osatu gabeko urteak: 0,0583 puntu hileko).	0,700
I.2. Kidego bereko beste espezialitateetan (osatu gabeko urteak: 0,0291 puntu hileko).	0,350
I.3. Ikastetxe Publikoetako beste kidegoetan (osatu gabeko urteak: 0,0104 puntu hileko).	0,125
I.4. Publikoak ez diren beste ikastetxeetan. Kidego eta espezialitate berean egindako esperientzia (osatu gabeko urteak: 0,0083 puntu hileko).	0,100
II. Prestakuntza akademikoa (gehienez 3 puntu)	
II.1. Norberaren espediente akademikoa. Batz besteko nota. Beharrezkoa da idatziz egotea. - 6,00 (ongi) eta 7,49 (oso ongi) artean. - 7,50 (bikain) eta 10 (ohorezko matrikula) artean.	1,000 1,500
II.2. Graduondoak, Doktoretzak eta aparteko sariak:	
II.2.1. Ikasketa Aurreratuen Diploma (Master ofizialak). Pedagogia eta Didaktikoa masterrak ez du punturik ematen.	1,000
II.2.2. Doktore-titulua.	1,000
II.2.3. Aparteko saria Doktoretzan.	0,500
II.3. Unibertsitate titulazio ofizialak (sarbide gisa erabili ez direnak):	
II.3.1. Lehenengo ziklokoak: Diplomak, Ingenieritza Teknikoak, Arkitektura Teknikoak...	1,000
II.3.2. Bigarren ziklokoak: Lizentzia, Ingenieritza edo arkitekturako bigarren zikloak eta gradu-titulua.	1,000
II.4. Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren Tituluak	
a) Musika zein dantzako titulu profesionala.	0,500
b) HEOko gaitasun tituluak: - (C1 edo C2) edo baliokide bakoitzeko.	0,500
c) Arte eta Goi Mailako Diseinuko teknikari tituluak.	0,200
d) Lanbide Heziketako Goi Mailako teknikari tituluak.	0,200
e) Goi Mailako Kirol teknikari tituluak.	0,200
II.5. Atzerriko hizkuntzak menderatzea Atzerriko hizkuntza baten ezagutza-ziurtagiriak, C1 edo C2 maila aurreratuko atzerriko hizkuntza baten hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen dutenak	0,500
III. Beste merezimendu batzuk (gehienez 5 puntu)	
III.1. Lehiatzen den kidegoko espezialitate berean oposizio-fasea gainditzeagatik (gehienez 5 puntu) Irakaskuntzako funtzio publikoko kidegoetan sartzeko 2012tik aurrera (urte hori barne), parte hartzen den kidegoko espezialitate berean oposizio fasea gainditu izana. Gehienez bi prozedura gainditzea baloratuko da.	2,500 bakoitzeko
III.2. Etengabeko prestakuntza: (gehienez 2,000 puntu) Hezkuntza administrazioak edo unibertsitateek deitutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntza gainditutako ikastaro bakoitza, hezkuntza--administrazioaren erakunde laguntzaileek antolatutako etengabeko prestakuntza planean jasotako jarduera bakoitzaren	
2.a) 3 kreditu baino gutxiagokoa ez dena.	0,2000
2.b) 10 kreditu baino gutxiagokoa ez dena.	0,5000
Bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak metatu daitezke.	

Kontuan hartzekoak

Hautatua izan naiteke espezialitate edo kidego batean baino gehiagotan?

- Ez.

Espezialitate batean baino gehiagotan hautatua izateko aukera izango banu, lortutako puntuazioa kontuan hartuta, zeinetan izango naiz hautatua?

- Adierazten duzun lehentasun-hurrenkera hartuko da kontuan, prozesuan onartutako pertsonen behin behineko zerrenda argitaratu ondoren horretarako gaituko den epean.

Hurrengo ikasturtean prozesu honetan hautatutako langile guztiek Lekualdatze-lehiaketan parte hartuko dute behin betiko destinoa lortu arte.

Oposizio hauek interinitate tasa % 8ra jaisteko helburua dute, baina **STEILAS**en ustez ez da beteko, lanpostuen kopurua altuagoa izan behar delako. Gai honen inguruan, azken hilabeetan Administrazioaren eta gure artean izandako bileren garapena salagarria da: informazio eza, emandako argibideak ez dira argiak izan, kudeaketa eskasa, aurreikuspen falta nabarmena...

Gaur egun behin-behinekotasuna altua bada, Administrazioaren errua baino ez da.

Oposizioen ereduak onartezinak dira: gaitegi zaharkituta, azterketa memoristikoa...

Azterketa hauek ez diete errealitateari erantzuten.

Nahiz eta Madrilgo Hezkuntzaren ministerioren ardura izan, Eusko Jaurlaritzak dinamika horri jarraitu dio, azken honek ere badu bere erantzukizuna.

Tamalez oraindik datarik gabeko 1. HEeko lanpostuak ateratzen dira Lanbide Heziketan, horrela nekez euskaldungo ditugu gure eskolak!



www.steilas.eu

Araba

Manuel Iradier, 40
01005 Gasteiz
☎ 945 141 104
araba@steilas.eu

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
☎ 945 013 397
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.
48013 Bilbo
☎ 944 100 298
bizkaia@steilas.eu

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 Leioa (Bizkaia)
☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
☎ 943 466 000
gipuzkoa@steilas.eu

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 • 20018 Donostia
☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 Iruñea
☎ 948 212 355
nafarroa@steilas.eu